



IRIZPEN ZK.: D19-001

OSOKO BILKUREN GRABAZIOEI BURUZKO ETA BERTARATZEN DIRENEN DATUAK BILTZEARI BURUZKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: [...] Udaleko idazkari kontu-hartzaileak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskaera idazkiak honakoa adierazten du:

"[...] Udalean 2017ko abenduaren 18an egin zen osoko bilkuraren saioan ondoko bi gertaerak jazo ziren, beste batzuen artean: alde batetik, Alkateak hala agindu zuelako, saio osoa grabatu egin zen, hasieratik gai-zerrenda bukatu arte (galde-eskeen atala izan ezik). Grabazioa egin zuen pertsona ez zen Udalekoa, eta erabili zituen baliabideak ere ez ziren Udalekoak. Eta, beraz, grabazio horren ondorioz sortutako fitxategia ere ez dago Udaleko bulegoetan gordeta. Beste aldetik, alkateak hala eskatuta, osoko bilkurara joan zen publikoko pertsona bakoitzak bere burua identifikatu behar izan zuen eta orri batean idatzi izen-abizenak eta NAN zk. (Agiriak 1120 zk.ko eta 2018ko abenduaren 27ko datako Sarrera-erregistroa du [...] Udalean)".

Ez dagoenez argi egindakoa ondo ezkontzen den datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatzen dugu.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea".

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpena eskatu da jakiteko ea oinarrizko eskubidearekin bateragarriak diren toki erakundearen funtzionamenduari zer ikusia duten hainbat datu tratamendu; zehatzago esanda, udalak osoko bilkura grabatzea eta bertaratu diren datuak grabatzea.



Hasteko, gogora ekarri behar dugu pertsonaren irudia eta ahotsa datu pertsonalak direla, eta hala xedatzen du 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 4.1 artikulua —Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Aurrerantzean Erregelamendu Orokorra)—:

“ «datu pertsonalak»: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri («interesdun») bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifikatzaile bati daitezkeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago”.

Bestalde, Erregelamendu Orokorren 4.2 artikulua xedatzen duenez datu pertsonalen tratamendutzat jotzen da *“datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabili zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea”.*

Datu tratamenduek Erregelamendu Orokorren 5.1 a) artikuluan xedatutako zilegitasun printzipioa bete behar dute; eta horretarako, Erregelamendu Orokorren 6.1 artikuluan jasotako honako oinarri juridikoetako baten babesa beharko dute: adostasuna, kontratua, legezko betebeharra, interes publikoa edo botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzea, interes legitimoa edo ukituaren berebiziko interesa.

Toki korporazio orokorretako osoko bilkurak publikoak izan behar direla agintzen du Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 70.1 artikulua, berriaz dioelako toki-korporazioen osoko bilkurak jendaurrekoak direla.

“70. artikulua.

1. Toki erakundeetako osoko bilkurak publikoak izan ohi dira. Hala ere, isilpekoak izan daitezke Konstituzioko 18.1 artikuluan, aipatutako herritarren oinarrizko eskubideari eragin diezaioketen arazoei buruzko eztabaida eta bozketa, gehiengo osoak hala egiteko erabakia hartzen badu.

Tokiko gobernu-batzarraren bilkurak ez dira jendaurrekoak”.

Aztertzen ari garen kasuaren antzekoak diren beste batzuetan ere adierazi dugunez, esan behar dugu osoko bilkurak grabatzeko eta grabazioen zabalkunderako adostasuna eskatu behar izatetik salbuesten duen lege-gaikuntza egon dagoen arren TAOLen, gure ustez, salbuespenak bakarrik balio beharko luke osoko bilkuretako edo unean uneko batzordeko kideentzat, eta ez bertan parte hartzen duten beste pertsonentzat. Valero eta Fernández Salmerón irakasleek diotenez, bilkuren publikotasuna *“tokiko administrazioak duen izaera demokratikoaren eta ordezkaritza izaeraren ondorio kualifikatua”* da, eta ordezkaritza-organo horietako kideak behartuta daude euren buruen irudiaren eta ahotsaren tratamendua onartzera, adostasunik adierazi gabe. Baina, kontrara, ahalegina egin beharko da gonbidatuen edo parte hartzaileen irudirik ez grabatzeko.



Beraz, korporazioak erabiltzen badu, herritarren ohorea eta intimitatea babesteko asmoz, eztabaida eta bozketa sekretuak izatea ahalbideratzen duen ahala, halakoetan osoko bilkurak grabatzeko gaikuntzak ez du balioko.

Horrez gain, grabazio bidez irudiak hartuz egiten den datu tratamenduak bete egin beharko du Erregelamendu Orokorraren 5.1a) artikulua xedatutako gardentasunaren printzipioa. Beraz, nahitaez eman behar zaie tratamenduaren gaineko informazioa bertaraten direnei, hala xedatzen baitu Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 22.4 artikulua.

“4. 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 12. artikulua aurreikusten duen informatzeko eginbeharra betetzeko, bereizgarri informatibo bat jarri beharko da, ondo ikusteko moduko lekuan, eta gutxienez honakoak adierazi beharko dira bertan: tratamendu bat dagoela, arduradunaren identitatea, eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 15-22 artikuluetan aurreikusitako eskubideak egikartzeko aukera dagoela. Bereizgarri informatiboan jarri ahal izango da informazioa Internet bidez eskuratu ahal izateko konexio kode edo helbide bat”.

Bereizgarri informatiboa edo txartela ipini beharko da osoko bilkura egiten den gelan sartu aurreko leku batean.

II

Kontsulta-idazkiak dioenez, grabazioa egin zuen pertsona ez zen Udalekoa, eta erabili zituen baliabideak ere ez ziren Udalekoak. Eta, beraz, grabazio horren ondorioz sortutako fitxategia ere ez dago Udaleko bulegoetan gordeta.

Gure ustez, Udalekoak ez dien langileek Udalerako egindako datu tratamenduak bat datoz tratamendu-eragilearen figurarekin. Erregelamendu Orokorraren 4.8 artikulua dio tratamendu-eragilea dela tratamenduaren arduradunaren izenean, datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo beste edozein erakunde.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ere 33.1 artikuluan xedatzen du tratamendu-eragile batek datuetara sartu beharra badauka tratamenduaren arduradunari zerbitzu bat eskaini ahal izateko, ekintza hori ez dela joko datuen komunikaziotzat, baldin eta 201/678 (EB) Erregelamenduan, lege organiko honetan eta legea garatzen duten arauetan zehaztutakoa betetzen bada.

Gainera, Erregelamendu Orokorraren 28. artikulua arautzen du tratamendu-eragilearen figura, eta artikulua 1. zenbakiak agintzen du tratamendu bat egin behar bada eta tratamendua arduradun baten kontura egiten bada, arduradun horrek arrazoizko neurri tekniko eta antolakuntzakoak aplikatzeko bermeak eskaintzen dituzten eragileak aukeratuko dituela soilik, hartara tratamendua bat etortzeko erregelamendu honetako eskakizunekin eta interesdunaren eskubideen babes bermatzeko.

Eta artikulua 3. zenbakiak agintzen du tratamendu-eragileak gauzatu beharreko tratamendua kontratu batek edo Batasunaren edo estatu kideen zuzenbidearen arabera beste egintza juridiko batek arautuko duela. Kontratuak edo bestelako egintza juridikoak eragilea eta arduraduna lotuko eta gutxienez honakoa alderdiak jasoko ditu:



- a) Eragileak arduradunaren jarraibide dokumentatuei segituz baino ez ditu tratatuko datu pertsonalak.
- b) Bermatuko da datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen konfidentzialtasun konpromisoa hartzen dutela.
- c) Tratamendu-eragileak hartu beharko ditu behar diren segurtasun neurri guztiak.
- d) Tratamenduaren arduradunak hartzen duen erabakiaren arabera, datu pertsonal guztiak ezereztu edo itzuliko ditu tratamenduaren zerbitzuen prestazioa amaitutakoan.

Azkenik, artikulua 9. zenbakiak dio kontratua edo bestelako egintza juridikoa idatziz egin beharko dela, eta formatu elektronikoan ere egin daitekeela.

III

Kontsulta-idazkian planteatzen den beste kontsulta bat osoko bilkurara doan publikoaren datu pertsonalak nahitaez biltzeari buruzkoa, izen-abizenak eta NAN idatzi behar izan zituztelako orri batean.

Bertaraten diren pertsonak identifikatzea eta haien datu pertsonalak erregistratzea, segurtasun arazorik ez badago, eta guk dakigula ez dago, gure ustez ez datoz bat lehen aipatu ditugun oinarri juridikoekin. Oinarriak Erregelamendu Orokorraren 6.1 artikuluan daude jasota. Kontuan izan behar da osoko bilkurak grabatu eta zuzenean ematen direla, eta, beraz, udaletxetik haratago doaz, eta, beraz, horrek bermatzen du herritar guztiek dutela bilkurak ikusteko aukera.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urtarrilaren 23an